

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 78/2022 Erabakia, otsailaren 15ekoa. Onestea nekazaritza ustiategietan inbertsioak egiteko laguntzen 2022ko deialdia

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 31/2016 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaien M04.1. "Nekazaritza ustiategietan inbertitzeko laguntzak" neurrirako laguntzak arautzen dituzten oinarriei, 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programaren esparruan, eta 1305/2013 Arautegian ezarritako mugen barruan, bai eta laguntza horren 2016ko deialdiari ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 10/2017 Foru Dekretuaren bidez, aldatu egin zen oinarri arautzaile horien zati bat, eta laguntza horien 2017rako deialdia egin zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 13ko 10/2018 Foru Dekretuaren bidez, Europako Batzordearen C(2017) 3859 Erabakiaren bidez 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programaren bigarren aldaketa onetsi izanaren ondorioz, berriz aldatu ziren aipatutako oinarriak aldaketa horretara egokitzeko eta oinarrietako alderdi batzuk zehazteko eta argitzeko, eta laguntzen 2018rako deialdia onetsi zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 26ko 10/2019 Foru Dekretuaren bidez, Europako Batzordeak 2018ko abuztuaren 13ko C(2018) 5542 Azken Erabakiaren bidez onetsitako 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programaren hirugarren aldaketara egokitzearren aipatutako laguntzen oinarri arautzaileak, berriz aldatu ziren beroriek eta laguntzen 2019rako deialdia onetsi zen.

Bukatzeko, Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 7ko 13/2020 Foru Dekretuaren bidez, Europako Batzordeak C (2019) 6120 azken Erabakiaren bidez 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programaren laugarren aldaketa onetsi izanaren ondorioz — hain zuzen, aldaketa horrek laguntza lerro honen zati bati eragiten dio —, neurri honetako oinarriak aldatu ziren.

Bestalde, Kontseiluaren 2020ko abenduaren 14ko 2020/2094 (EB) Erregelamenduak Europar Batasuna suspertzeko tresna bat ezarri zuen, COVID-19aren krisiaren ondorengo susperraldian laguntzeko, eta ezarri zuen ezen tresna horren funtsen zati bat Landa Garapenerako Programaren esparruan erabili behar dela 2021. eta 2022. urteetan. Horiek horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko LGPak tresna horretatik datozen funtsak izango ditu (EURI funtsak); beraz, deialdi hau EURI funtsak kofinantzatuko ahalko du ehuneko 53an.

Kontuan hartuta Arabako Foru Aldundiaren 2022ko ekitaldirako gastuen aurrekontuan baidagoela partida bat laguntza lerro honetarako, onespena ematen zaio 2022ko deialdiari, eta hari aurre egiteko behar besteko kreditua gordetzen da.

Horren ondorioz, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatu eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea nekazaritzako ustiattegietan inbertsioak egiteko laguntza lerro honen 2022. urterako deialdiari. 4.1. neurria, honako xehetasun honekin:

a) Aurkezteko lekua.

Eskaerak hemen aurkeztu behar dira:

– Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean.

– Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroetan.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako batean.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek egoitza elektronikoa (<https://egoitza.araba.eus/es/-/ayudas-inversiones-explotaciones-agrarias>) dagoen izapide zehatzaren bitartez telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzan dutenak”

b) Eskaerak aurkezteko epea: 20 egun baliiodun, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliiodunean amaituko da.

c) Aurkezteko modua:

Eskaerak inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira eta, haiekin batera, laguntzaren oinarri arautzaileen arabera onetsitako agiriak.

Halaber, laguntza eskaerak eta laguntza ordaintzeko eskaerak bide telematikoz egin ahalko dira, Arabako Foru Aldundiaren web orrian. Nolanahi ere, egindako inbertsioa egiaztatzeko faktura jatorrizkoak aurkeztu beharko dira, EURLren eta Arabako Foru Aldundiaren laguntza dela markatzeko.

d) Laguntzen zenbatekoak: 2022ko deialdirako, laguntza hauen zenbatekoak izango dira oinarri arautzaileen 11. artikulua ezarritakoak.

e) Kreditu erreserba: Arabako Foru Aldundiaren 2022rako gastuen aurrekontuko 40101. G/414400/77000414 “Inbertsioak nekazaritzako ustiattegietan. 2022ko deialdia” partidaren kontura, guztira, 3.199.630,29 euroko zenbatekoa, urteka honela banatuta:

- 2022: 1.199.630,29 euro. Zorpekin erreferentzia: 22.1.22.105.280/000.
- 2023: 1.500.000,00 euro. Zorpekin erreferentzia: 22.3.23.105.13/000.
- 2024: 500.000,00 euro. Zorpekin erreferentzia: 22.3.24.105.3/000.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutakoen ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidaren edozein ziozengatik gerta daitekeen kreditu gehikuntzarenegatik ere.

Bigarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea laguntza deialdi hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, haren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo horri, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke

Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 15a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE